



GOIBURUREN NATURAREN IKUSPEGIA, TOLOSAN

Nisa Goiburu Ordiziako artistaren 'Hala ere, Natura gara' erakusketa ekainaren 12ra arte ikusi daiteke Aranburun 2

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Larunbata
2010-05-01

VIII. URTEA 1989. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

KARLOS LINAZASORO IDAZLEA

«Haiku askoko liburua idazterakoan poz txiki-txiki asko lortu ditut»

TOLOSA 'Hamazazpikotan' liburua argitaratu berri du; Japoniako poesia-molde tradizionala landu du oraingoan

EGUNEKO POEMA BAT 2006ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitarte egunero haiku bat idatzi zuen s



Irantzu Arratibel, Eusko Goñi eta Arkaitz Uranga Altzoko frontoiko rokodromo berrian. I. GARCIA

ROKODROMO BERRIA DUTE ESKALATZAILEEK

ALTZO Irantzu Arratibel Kirol zinegotziak bultzatuta, Eusko Goñik eta Arkaitz Urangak diseinatu eta muntatu dute frontoiko atzeko paretan z

Euskaraz Bizi Eguna antolatu dute

VILLABONA Maiatzaren 8an izango da Euskal Herrian Euskaraz egun osoko festa 4

Antzinako trenbideen bidea berreskuratzeko eguna, bihar

LEITZA Natur Bideen Eguna bezala izenpetu dute; ibilaldiak eta musika izango dira, besteak beste 7

ALZARIAK
BASOKO

-50% -40% -35% -20%

LIKIDAZIOA

ERAKUSKETA ALDARAKOAK

www.muebles-basoko.com mueblesbasoko@yahoo.es

BASOKO
ALTZARIAK

larrea auzoa s/n poligono 34, 2
20150 billabona gipuzkoa
tfn.: 943 692 965

Rokodromo berri bat dago eskualdean eskalataileentzako. Altzoko frontoian egin dute. Irantzu Arratibel Kirol zinegotziak bultzatu du eta Arkaitz Urangak eta Eusko Goñik muntatu dute.

Kolorezko heldulekuak frontoian

IMANOL GARCIA

Rokodromo jarri dute Altzoko frontoian, atzeko horman. Hamaika metro inguru ditu altueran eta goiko aldean zabalagoa denez, beste bimetrotro gehiago egiteko aukera ematen du. Irantzu Arratibel Kirol zinegotziak bultzatu du azpiegitura berria eraikitzea. «Udalera sartu aurretik asmoa ere bazegoen egiteko», azaldu du Arratibelek, «baina gero etorri da diru laguntza izatearen aukera eta baita Arkaitz herrian bizitzea ere».

Izan ere, Arkaitz Urangak eta Eusko Goñik diseinatu eta muntatu dute rokodromo. Uranga jatorriz ibartarra da eta egun Altzon bizi da eta Goñi tolosarra da. Arratibelek dioenez, «rokodromo egiteko pare bat aurrekontu eskatu genizkien enpresa batzuei, baina oso garestiak ziren. Horregatik Arkaitzengana jo genuen eta proiektu bat egin zuten aurrekontuan sartzen zena».

Rokodromo egitekoan Udalak kezka nagusi batizan du: segurtasuna. «%100ean segurtasuna ematea nahi genuen. Beharrezkoa zen, beraz, sistema bat jartzeari aurreko rokodromoan ibiltzeko aukera mugatzen ziena», azaltzen du Arratibelek. Horrela, panel batzuk lotu dituzte paretara eta horiek askatzeko bi metrotara iritsi behar da. «Horraingo haurrak ez dira iristen», dio Kirol zinegotziak, «baina sistema horrek ez die mugatzen asteburuan etorri daitezkeen gazte edo helduei».

Boulderra egiteko aukera ere

Panel horien eta paretaren artean koltxonetak jarriko dituzte. Hala nahi duenari, boulderra egiteko aukera ematen dio horrek, hau da, sokarik gabe heldulekuetan ibiltzea. Hori bai, marra gorri bat margotuta dago eta hortik gora ezin da igo sokarik gabe. Aurki, rokodromoaren alde batean erabilera arauak jarriko dituzte eta baita egin daitezkeen bideak eta hauen zailtasunak ere. Rokodromo egiteak eta udaletxearen ondoan dagoen parke txiki bat berritzeak



Frontoian atzeko paretan egin dute rokodromo berria. Hamaika metroko altuera du. I. GARCIA

14.000 euroko kostua izan du. Foru Aldundiak horren erdia eman du diru laguntzen bitartez eta beste erdia Udalak jarri du. «Herrian kirola eskolarekin lotuta dago eta Udalarik ez dio suposatzen gasturik. Zerbait gastatzeko auke-

ra izanik, honetan gastatzea pensatu genuen», dio Arratibelek.

Oinarrizko ikastaroa

Arkaitz Urangak garbi du haurrei zuzendutako ikastaro bat egin behar dela: «Rokodromo jarrita,

seguru Altzoko haur bat baino gehiagori eskalada egiteko gogoia sartuko zaiola. Horretarako garrantzitsua da oinarriko gauzak erakusteko ikastaroa egitea».

Eusko Goñik gaineratzen duenez, «eskualdean faltan botatzen ditugu horrelako azpiegiturak. Ni Hernialden zegoen rokodromoan hasi nintzen. Gero hangoa kendu zuten eta orain jende asko Asteasura joaten da. Orain ohitura dago boulderra egitearena, baina rokodromo gutxi daude». Urangak dioenez, «horrelako gauzak ez badira egiten, jende gutxiagok eskalatu du. Herri guztietan horrelako zerbait egongo bazen, futbol zelaiak eta frontoiak dauden bezala, jende gehiago ariko zen eskalatzeko».

Kanpora joaten direnean eskalatzera jende gazte asko ikusten dute. «Beraien herrialdeetan azpiegiturak dituzte», dio Goñik. «Beste kirol bat bezala ikusten da. Ikastaroak ematen dituzte, rokodromo handiak dituzte... Eta hemen hori falta da».

Uranga eta Goñi eskaladaren munduan aspalditik dabilta. Beraientzako hasi ziren heldulekuak egiten. Ibarroko lokal batean boulderra egiteko panel batzuk dituzte eta 20-25 lagun elkartzeko dira. «Altzoko rokodromoak aukera ematen dizu sokak erabiltzeko», diote.

Zailtasunaren aldetik, 4tik 6B artekoa du Altzoko rokodromoak. «Bide asko daude», dio Urangak. «Helduleku denak erabilia egin daitezke, kolore batekoak erabilia... Maila erraza da, hemengo haurrek erabili ahal izateko. Orain gutxi ezagun batzuk ibili dira bertan eta oso gustura» ibili zirela esan zien.

Urangak eta Goñik kirola egiteko alternatiba bat bezala ikusten dute eskalada. «Futboleko ibiltzeko jendea behar duzu, baina eskaladan bakarrik ere ibili zaitezke», dio Urangak. «Dagoen kiroletatik alternatibarik onena da edozeinek bere bizitzan hobetzeko». Goñik gaineratzen duenez, «eskalada filosofia bezala gustatzen zait ez zarelako beste inorren aurka lehian zure buruaren kontra lehian zarezara».

Laburrak

GPS ikastaroa antolatu du Oargik hilaren 10ean hasita

TOLOSA ● GPS ikastaroa antolatu du Oargik hilaren 10, 12, 14 eta 15 egunetarako. Carlos Garcia izango da irakaslea eta lehen hiru egunetan ikastaroa Oargin bertan izango da, 19:00etatik 21:00etara. Hilaren 15ean 09:00etatik 13:00etara izango da. Izena ematerako garrantzia 20 euro aurreratu behar dira eta antolatzaileek uste dute 30 euro inguru kostatuko dela ikastaroa. 688-69 86 42 telefono zenbakian edo info@oargi.org helbidea eman daiteke izena.

'Mugaldekoak' filma dohainik astelehenean

TOLOSA ● Leidor aretoan *Mugaldekoak* filma ikusi ahal da doan etzi, astelehena. Emanaldia 20:30ean hasiko da. Sarrera doan bada ere, gonbidapenarekin sartu behar da. Gonbidapena jasotzeko Leidor aretoko leihatilara joan behar da, zinema emanaldia dagoen garaian.

Bordontzarien entseguak hilaren 7an hasiko dira

TOLOSA ● Sanjoanetan bordondantzari bezala ateratzeko entseguak hilaren 7an hasiko dira eta ostegunero egingo dira Usabal kiroldegian 20:30ean. Bestalde, helduen ikastaroak maiatza eta ekainean astearteetan izango dira, 20:30etik 21:30era.

Bizkarra eta artikulazioen inguruko hitzaldia

IKAZTEGIETA ● Aulas Kutxak antolatu, Javier Maria Susperregik hitzaldia emango du *Bizkarra eta artikulazioak nola zaindu* izenburupean. Liburutegian izango da saioa, etzi, astelehena, 17:30ean.

Begiristain sagardotegian bazkaria antolatu dute

ALBITZUR ● Herriko Jai Batzordeak aurturera sagardotegia antolatu du. Hilaren 15ean Ikaztegieta Begiristain sagardotegian izango da bazkaria. Autobusa eguerdian aterako da herritik eta bazkalostean lehendabizi Beasainera joan eta gero Albizurrera itzuliko da. Izena ematen dutenek bazkaria bakarrik ordainduko dute, 25 euro inguru. Izena udaletxean eman behar da edo 665-74 63 23 telefono zenbakira deituta. Hilaren 12a izango da azken eguna horretarako.

Adimen emozionalari buruzko ikastaroa

TOLOSA ● Barrearen Eskolak adimen emozionalari buruzko ikastaroa antolatu du hilaren 15 (10:00-20:00) eta 16rako (10:00-14:00). Izena eman edo informazioa jasotzeko 943 11 86 69 telefono zenbakira deitu behar da.

KAZETARIAK (Erref.: 2010-LPKAZ)
Berria egunkariak kazetariak behar ditu ordezkapenentzako lan poltsa osatzeko.


Eskatzen

- Kazetaritza ikasketak izatea
- Kazetari lanetan esperientzia izatea
- EGA edo baliokidea den euskara maila izatea

Kontuan hartuko da:

- Quark X Press programa erabiltzen jakitea
- Frantsesez eta ingelesez jakitea
- Gidatzeko baimena eta autoa izatea

Bidali curriculuma gizabaltzabideak@jarduna.net helbide elektronikora, erreferentzia zehaztua, maiatzaren 10a baino lehen.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

E Elkarrizketa

KARLOS LINAZASORO | Idazlea

«Esaten dena bezain garrantzitsua da esaten ez dena»

Poesia » Karlos Linazasoren azken liburua, 'Hamazazpikotan', kalean da. 100 orrialdeko lana Elkar Argitaletxearekin atera du.



AINHOA ALTUNA

ASIER IMAZ

Donostiako Elkar aretoan aurkeztu zuen herenegun bere azken lana Karlos Linazasorok (Tolosa, 1962). *Hamazazpikotan* liburuan Japoniako poesia-molde tradizionala lantzen du tolosarrak. 2006ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitarte, egunean haiku bat idaztea adostu zuen bere buruari.

Narrazioa, nobela, haur eta gazte literatura... orain berriz, haikuak. Haikuak poema japoniarrak dira eta liburuaren titulua esaten duen bezala, 17 silabakoak dira. Poema txiki-txiki batzuk dira, 5-7-5ekoak. Hau da, lehen lerroan bost silaba, gero zazpi eta hirugarrenean bost.

Silabak aipatzen dituzunean, berbsok etortzen zaizkit burura.

Haikuak zaharragoak dira eta ez dute errimarik. Tradizionalak 17 silabakoak dira. Haiku librea ere egin liteke, silabak kontatu gabe, baina jatorrizkoa edo oinarritzkoa hau da, 17 silabakoa.

Zergatik haikuak?

Betidanik izan dut gustuko. Umeentzako idatzi izan ditut eta helduentzako ere bai, kasu honetan ordea, liburu osoan haikuak bakarrik daude; 300 inguru. Liburu hiru partetan banatua dago eta bakoitzean gai bati buruzko haikuak idatzi ditut.

Natura, maitasuna eta denbora.

Hori da. *Naturaren oskolean*, *Biok garen maitasuna* eta *Denboraren eguraldiak*.

Denbora zure lanetan asko agertzen den gaia da, ezta?

Nire ustez, nire eta gizaki guztien kezkanagusia hori da: denborabadoala aurrera eta horrekin batera bizitza; hor heriotza dago eta horri buruz egiten ditugun hausnarkeak eta galderak; bizitzak zer zentzu duen; zertarako gauden; zein betebeharrak daukagun... denbora badoala eta pixka bat ezinegon hori. Sail horretan horixe da erabiltzen dudana kezka nagusia.

Kezka, beldur ukitua... denborak ez al du ezer positiborik?

Bai, badu. Pozkidazko poemak ere badira bizitzari buruzkoak, eta bai-

ta zelebraziozkoak ere. Baina pixkabat oreka hori lortu behar da, balantza orekatzea. Bizitzen dituzun egunak eta bizitzeko falta zaizkizun egunak. Horri buruzko erreflexio bat da.

Bigarren zatiko gai nagusia maitasuna litzateke. Nondik heltzen diozu gai zabal honi?

Haikuak labor-laburrak direnez, laburtasun horretan normalean inpresio bat jasotzen da. Ez dago gauza handirik esaterik, baina esaten denak neurtua izan behar du. Nolabait sujerentzia mailan gelditzen da, esan baino gehiago sujeritua egiten baitu haikuak. Beraz, esaten dena bezain garrantzitsua da esaten ez dena. Hustasunak poema hauetan izugarritzko indarra dauka.

Hamazazpikoa motz geratu ote zaizun inoiz galdetzeraz nindoan baina...

Haikuen lilura nolabait hori da. Ahalik eta hitz gutxienekin ahalik eta gauza gehien esatea, 17 silabatan. Normalean dena sujerentzia mailan gelditzen da. Esaten ez denak, poemaren inguruan dagoen hustasun horrek, indar handia hartzen du. Poemaren irakurleak nolabait berak amaitu behar du. Idazleak parte bat ematen dio eta irakurleak borobildu egin behar du.

Natura. Denborak bezala honek ere badu bere alde iluna. Ba al dute zure haikuek ukitu hori?

Bai, baina gehiago naturari kantu bat dela esango nuke. Nolabait poetaren begirada alderriak dabil, baretetik bestera. Kontenplaziorako jendeak normalean ez dauka denborarik eta poetak pixka bat lan hori egiten du. Gauza txiki-txikietan fijaszen da: xomorroetan, txorrietan, loreetan, arboletan, gertatzen diren aldaketetan... Eguraldiak indar handia du; urte-giroek. Mikrokosmos hori azaltzen saiatzen da poeta.

Poetak beti zaurituta dagoela ematen du. Zauririk gabe ezin al du ezer sortu?

Nire ustez hori horrelaxe da. Poeta gizaki zauritu bat da, bai. **Eta ez al daukazu gogorik zauri hori xiteko?**

Zauriak idatziz sendatzen dira. Liburuak bukatu eta sendatua sentitzen zara.

Zure curriculum-a ikusita, 30 liburu inguru, sendatze horrek epe motxa duela dirudi.

Kondena bat da. Hori beti esan dut, kondena bat dela. Batzuk nolabait azal-azaletik bizi dira eta beste batzuk berriz, buruan beti galderak ditu eta sakontasun handiagorik bizitzen ditu gauzak. Horrela gehiago sufritzen da, baina horrek ez dauka erremedioirik.

Sufirimendu konstante bat.

Bai, baino poz handia ere bai. Haiku bat bukatzen dudanean poz txiki-txiki bat sentitzen dut barruan. Haiku asko dagoen liburu hau idazterakoan adibidez, poz txiki-txiki asko lortu ditut.

Pragmatismoak ez al dizu atentzioa deitzen. Hau horrela da eta puntu.

Nik ez daukat ziurtasunik ezertaz. Nahiago nuke halakoa izango bantintz baina hori ez dago aldatzerik. Nik 47 urte dauzkat eta gero eta okerrago doa kontua, hori argi dago. Baina beste alde batetik, bakoitza den bezalako da eta zorionekoak poetak, ezta? Besteei..., akaso ez da nire kasua izango baina, besteei gauza ederrak ematen dizkietelako. Ez poetak bakarrik, nire ustez artista guztiak dute zauri txiki hori, eta horri esker sortzen dituzte gainerakoek sortzen ez dituzten gauzak.

Noiz sortzen duzu? Egunero.

Goizez, arratsaldez edo gauez?

Orain goizean lan egiten dut, eta arratsaldean idatzi. Badaramazkit idazten 25 urte edo gehiago eta kontua jartzea da. Mahaian eseri eta jartzea. Niretzako edozein momentu da ona. Gainera behar bat da, ez da denbora pasa bat. Egunero idatzi behar dut nolabait nire buruari inoiz ondo sentitzeko.

Soinean eramaten al duzu idazteko zerbait?

Haikuak idatzi nituen garaian, 2006an, urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitarte egunero bat idatzi nuen. Nire buruari obligazio hori jarri nion.

Arriskutsua, sorkuntza eta obligazioa...

Ez, diziplina kontua da. Egunero zeure buruari ordu-erditxo bat, ordubetetxo bat exijitzea; buruari buelta batzuk eman, begirada zorrozto, inguruan esaten eta gertatzen denari adi egon... Halaxe sortu zen liburua eta gogoratzen naiz egunero koaderno eta lapitza patritan eramaten nituela. Haiku bat edozein lekutan idazten da.

Liburutegian lan egiten duen idazleazitea ez al da tranpa.

Liburutegia nire lana da; nire ogi-

bidea; soldata; familia aurrera ateratzeko nire modua. Baina nik... idazteaz bizi nahiko nuke. Baina hori ez da posible.

Euskaraz gainera...

Erdaraz ere oso jende gutxi bizi da idazteaz, bakan batzuk. Eta euskaraz are gutxiago.

Gauz argia piztu eta idazte hori...

Gauz nik lo egiten dut.

Inoiz ez al zaizu pasa hori?

Bai, askotan. Haikuak, aforismoak, eta ipuin txikiak nola idazten ditudan, gauza bat burura etortzen zaitdanean, argia piztu eta mesanotzeko koadernotxoan apuntatzen dut ideia edo etorri zaidan zera. Hortxe uzten dut hurrengo goiza arte.

Harpidedun egiten bazara aisialdirako **bonu bat opari**

Eroski Bidaiak eta Baskinbox etxean eskutik.

40 eskaintzatik gora aukeratzeko Euskal Herrian zehar.

Hotel bateko egonaldi bat, 2 lagunentzako bazkari bat edo abentura eta kirol ekitaldi bat izango duzu aukeran.

HARRERAKO ETORRAKIO
943-30 43 45 • harpidetza@berria.info

Uztailaren 15ean
Tenerifeko astebeteko egonaldia zotz egingo dugu BERRIaren harpidedunen artean.
Eroski Bidaiak-en eskutik.

Orain, beste arrazoi bat BERRIaren harpidedun izateko.

Lehen Euskaraz Bizi Eguna antolatu du Euskal Herrian Euskaraz taldeak

Villabona » «Herriarren artean gure hizkuntzaren inguruko kontzientzia berrindartzeko» jaia izango da maiatzaren 8an.

ERREDAKZIOA

Villabonako Euskal Herrian Euskaraz taldeak Euskaraz Bizi Eguna antolatu du gaur zortzira, maiatzak 8, beraz. «Villabonako euskararen aldeko lanean hasi ginenetik, herriarren artean gure hizkuntzaren eta berreraiki nahi dugun herri euskaldunaren inguruko kontzientzia berrindartzea izan da gure helburu nagusia eta helburu horretan sakontzeko asmoz sortu da jaia eta aldarrikapena uztartuko dituen Villabonako Euskaraz Bizi Eguna», argitu dute antolatzaileek.

EHEko kideen ustez, «mundu guztiak esango du euskararen alde dagoela, baina bada garaia, euskararen alde egotetik, euskararen eta herri euskaldunaren alde egitera pasatzeko». Era berean, Villabonako kaleetan gaztelania nagusitzen ari dela nabarmendu dute eta «euskaldunok gero eta gehiago garen arren, kale erabilera ez da aurrera pausu nabarmenik ikusten». Taldearen ustez, hala ere, «fenomeno hori ez da ematen euskaldunok

gure hizkuntza erabili nahi ez dugulako, erabilerarako esparru mugatuak ditugulako baizik». Egoera honek asko kezkatzen du Villabonako Euskal Herrian Euskaraz taldea eta «Euskal Herriaren baitan zonalde euskaldun batean bizi garelako esatea asko gustatzen zaigu, baina tamalez, gure herriaren euskaraz bizitzea ezinezkoa dela ohartzen gara», esan du. «Areago oraindik, benetan kezagarritzat dugu gure herriaren azken urteotan euskalgintzaren jardun apalake erakutsi dugun errealitatea, eta egoera latz horri erantzun eta buelta emateko borondatez abiatu dugu egitasmo hau», gaineratu dute.

«Gure bizitza euskaraz egiteko dugun eskubidea aldarrikatuz» Zentzu horretan, «lehenik eta behin, euskaldunok gure bizitza euskaraz egiteko dugun eskubidea errespetatu dadin» eskatzen dute eta baita «egungo administrazio ezberdinen hizkuntza politiketan aldatuta sakonak behar ditugu derigorrez, erroko aldaketak alegia» aldarrikatu ere. Administrazioen zain egon gabe, hala ere, «norbanakotik hasita, guztiaren artean eta auzolanaren bidez berreuskaldundu nahi dugu gure herria gaur bertatik», argitu dute.

Bukatzeke, festa eguna antolatuko da eta horretan parte hartuko duten taldeak eta pertsonak zehaztu behar izango dira. Maiatzaren 8an izango da Villabonako Lehen Euskaraz Bizi Eguna. HITZA



Maiatzaren 8an izango da Villabonako Lehen Euskaraz Bizi Eguna. HITZA

ketan euskaraz bizi diren Villabonako elkarte eta norbanakoen ezinbesteko laguntza eskertu nahi du EHEek. «Bestalde, billabonatar guztiak dei egiten diegu euskaraz bizitzearan aldeko hautuari haus-

poa eman diezaieten eta Euskaraz Bizi Egunean parte hartuz apustu horrekiko atxikimendua adieraz dezaten, soilik horrela lortuko baitugu Villabona euskaldun bat erabizitzeara», argitu dute.

» EGITARUA

- **10:30.** Diana erraldoi eta buruhandiek plazatik abiatuta.
- **11:30.** Haur Krosa Malkar plaza-tik abiatuta.
- **12:00.** Dantza eta musika emeraldia plazan. Oinkari dantza taldearen eta Loatzo musika eskolaren eskutik.
- **14:00.** Bertso bazkari herrikoia Kultur Etxean. Hamaika Bertuteko Amaia Agirreazaldegi, Ander Lizarralde, Amaia Agirre eta Unai Muñoz bertsolariekin. Gai-jartzaile la-

- netan Iker Iriarte ariko da. Bazkari-rako txartelak izango dira salgai Amasa eta Larrea okindegiaren zein Maxola, Apatx, Obaba eta Iratzar tabernetan.
- **18:00.** Kalejira-poteoa kale animazioarekin Kultur Etxetik abiatuta.
- **21:00.** Bokata afaria plazan Onddo Gazte Asanbladaren eskutik.
- **22:00.** Kantuki herriko taldearen kontzertua.

Datorren astean bukatuko dituzte Zabalarretako putzua berritzeko lanak

Tolosa » Aurrekontua 4.206,22 eurokoa da; landare desberdinak landatuko dituzte.

ERREDAKZIOA

Tolosako Udalak jakinarazi duenez, hasi dituzte jada Zabalarreta parkeko urmaela edo putzua berritzeko lanak eta datorren astean bukatuko dituzte.

Udalak urmaela «arrainak eta landareak elkarrekin biziko diren» toki bihurtuko dutela esan du. «Horrela, tolosar guztiak aukera izango dute landaredia eta fauna dituen urmael batekin gozatzeko», gaineratu dute.

Orain dauden bi irlatxoak kenduko dituzte eta gune bakar batgeratuko da eta gero, hainbat espezie-tako 60 landare aldatuko dituzte. Landare berriei dagokionez, haiek uretakoak zein hosto flotatzaileak izango dituzte. «Hain zuzen ere, hosto flotatzaileak dituztenak nufareak izango dira, eta urmaelaren ondoan egongo dira», azaldu du Udalak.

Era berean, putzu ertzenean landareak jarriko dituzte: uretako ostargi-belarra, lore urdina duen lirioa, kala, lore txuria eta hosto zabal duen landarea eta *damerna peltata*, hau da, hosto borobil handiko landarea. Iratzgaki biologiko bat ere jarriko dute urmaela eten-gabe garbitzeko; horrela «ura beti garbi egongo da, karpak landareekin batera bizi ahal izateko».



SARIDUNAK

①

Liburua

Imanol Murua Uriak
datzitako **Loiolako hegiak**
liburuaren 2 ale

Xabier Zubeldia Ugartemedia (Tolosa)
Itziar Altzelai Alberdi (Leitza)

Saria jasotzeko HITZAren Tolosako bulegotik pasa



②

Diskoa

Mikel Gaztelurrutiaren
The New Jazz Voices Ensemble
diskoaren 2 ale

Rosa Iñurrita Angulo (Villabona)
Oier Pikabea Karrera (Ibarra)

Saria jasotzeko HITZAren Tolosako bulegotik pasa



③

Antzerkia

Ez Dok Hiru antzerki bikoteak eskainita
EUSKARAZETAMOL antzezlanerako **sarrerak**
Maiatzak 21, ostirala - 20:30etik aurrera - Tolosako Topic-en

Lurdes Karrera Karrera (Ibarra)
Miren Atxaga Arnedo (Tolosa)
Sarrerak lehiatilan bertan izango dituzue



④

Kontzertua

Alos Quarter laukoteak
eskeiniko duen kontzerturako **sarrerak**
Maiatzak 28, ostirala - 20:30etik aurrera - Tolosako Topic-en

Karme Txurruka Larrañaga (Tolosa)
Juan Antonio Iraeta Arsuaga (Ikatzegieta)
Sarrerak lehiatilan bertan izango dituzue



E Elkarrizketa

NISA GOIBURU › Artista

«Naturaren beste ikuspegi bat erakutsi nahi izan dut»

Kultura › Nisa Goiburuk Naturaldiaren barruan sorturiko 'Hala ere, Natura gara' erakusketa dago ikusgai egunotan Aranburu jauregian.

INIGO TERRADILLOS

Pintura, collage-a, instalazioa, eskulturak edota argazkiekin osatu du Nisa Goiburuk ordiziarrak Aranburu jauregian dagoen *Hala ere, Natura gara* erakusketa. Naturaldia ekimenerako bereziki sorturiko lana da, eta ekainaren 12ra arte izango da ikusteko aukera. Artistak naturaz duen ikuspegia erakusten du lan honen bitartez.

Nola sortu zen erakusketa hau egitearen ideia?

Shole Martinek, Naturaldiko arduradunak, nire azken lanak ikusi zituen. Naturaren ingurukoak ziren, eta eskatu zidan ea Naturaldirako erakusketa bat egingo nuen. Nik Aranburu jauregirako prestatuturiko proiektu bat aurkeztu nion, eta segituan ulertu zuen eta asko gustatu zitzaion, beraz aurrera egin genuen. Oso gustura egin dut, eta antolatzaileen babes handia izan dut.

Zer adierazi nahi izan duzu lan honenkin?

Natura betidanik asko gustatu eta interesatu zaidan gai bat izan da, gizakiarekin erabat lotua dagoelako. Erakusketa honen bidez naturaren beste begirada edo ikuspen bat erakutsi nahi izan dut.

Natura ikusteko beste modu bat, orduan?

Zuhaitzak, mendiak, harkaitza, ibaiak... ikusten ditugu. Horiak guztia natura dira. Baina, natura ikusteko beste era bat ere badago. Eta ikuspegi horretatik osatu dut nire lana. Hori argazkietan ikus dezakegu. Erakusketa nik ateratako argazkiekin osatu dut, eta horietan erakutsi nahi izan dut, esaterako, zuhaitz batzuen enborrak edota harriak ikustean zer gehiago ikusi dudan nik. Jendeak agian harri edota zuhaitz horien atzean ez du ezer gehiago ikusten, baina nik formak ikusten ditut, bihotzak, animaliak, izarrak, hostoak edo beste mila gauzen formak.

Naturaren ikuspegi horrekin batera, erakusketa honek ere badu beste ideia bat.

Era berean, naturaren biodibertsitatea ere erakutsi nahi izan dut lan honen bidez. Naturak duen abe-

rustasun hori adierazteko hainbat gai jorratzen ditut, eta horretarako, hainbat teknika erabiltzen ditut, nolabait aberastasun horren adierazle bezala. Hala, argazkiekin batera, instalazioak, collage-ak, pintura edota eskultura ikus ditzakegu.

Eta erakusketaren izena, nondik dator?

Erakusketako gelak izendatuta daude, eta lanak Joaquin Araujok idatzitako poema eta haikuekin lagundu ditugu. *Hala ere, natura gara* izena du gela batek, eta horrek, hain zuzen ere izena ematen dio erakusketari. Natura eta gizakiaren arteko loturaz edo erlazioaz ari da, eta gizakiaren ekintzen ondorioz natura puskatu egin daitekeela adierazten du. Gizakiak berak ere arazoak izaten ditu edo izan ditzake, eta natura bezalako puskatu egin daiteke. Bihotza izan ohi da arazo horiek konpontzeko edo zuzentzeko motorra, eta hori gizakian bezala naturan ere gertatzen da, naturak ere baduelako bihotza. Izan ere, gauza guztien barnean bihotz bat dago. Bestalde, ideia hau ere asko gustatzen zait eta oso garrantzitsua iruditzen zait: «Ezer ez da dirudien bezalakoa eta guztia da ez dirudiena».

Erakusketaren inaugurazioa berezia izan zen.

Ahalik eta arte mota gehien naturan eta gizakian integratzea gustatzen zait. Horregatik, inaugurazio-ko egunean, denetarik izan genuen, musika, ahotsa, poesia... Horrekin, nolabait, naturaren biodibertsitatea edo aberastasuna ere erakutsi nahi nuen.

Lan hauek lantzea erraza izan al zen zuretzat?

Segituan atera zitzaizkidan ideiak barrutik. Mendian edo nonahi naitzalarik, zerbaitek berezia ikusten badut, edo zerbaitek atentzioa ematen badit, kamara atera eta argazkiak ateratzen hasten naiz. Horrela, gordeta geratzen da, eta niri burura etorri zaidan ideia hori jorratu dezaket ondoren. Erakusketan honetarako ideiak barruan nituen, eta oso erraz joan zitzaizkidan ateratzen.



Era askotariko teknikak eta materiala erabiliz naturak beretzat duen esanahia azaldu du Nisa Goiburuk. I.T.

» DATUAK

■ **Zer.** *Hala ere, Natura gara* pintura, collage-a, eskultura, instalazioa eta argazkia erabiliz osaturiko erakusketa. Naturaldia jardunaldien barruan kokatua, biodibertsitatea eta naturaz duen ikuspegia adierazten du lanaren bidez.

■ **Non eta noiz arte.** Aranburu jauregian ikusgai, ekainaren 12ra arte.

■ **Bisita gidatuak.** Nisa Goiburuk berak eskainiko ditu, maiatzaren 5, 12, 19 eta 26an eta ekainaren 2an eta 9an, 19:00etan.

**TOLOSALDEKO EUSKAL
ESKOLA PUBLIKOAK**
BATXILERGOKO IRABASGAIEEN
ESKAINITZA ZABALA

ORIXE
Bigarren
Elkarrizketa
Maitzaren 12an

BATXILERGOAK
Zientziak eta Teknologia
Giza eta Gizarte Zientziak

943 65 13 87
E-mail: 01790300@orixeta.net www.orixa.net

Aurrematrikulari: Maitzaren 9tik 12ra

Aurreku eta Soinu Zahar Txapelketa azken txanpan

Kultura » Eskualdeko hainbat dantzari gaztek parte hartu dute. Neska eta mutil asko finalerako sailkatu dira.

ERREDAKZIOA

Pasa den larunbatean, Villabonako Gurea Zineman, Aurreku eta Soinu Zahar Txapelketako kanporaketak jokatu ziren. Bertan 42 dantzari gaztek parte hartu zuten eta horien artean ziren Villabonako Oinkari Dantza Taldeko 14 dantzari.

Villabonakoa, finala ospatu arreritiko azken kanporaketa izan zen eta dantzariak ez zuten hutsik egin. Mutiletan, Axier Iriartek (Villabona) irabazi zuen. 6. postuan Hodei Arrastoa (Zizurkil) eta 8. postuan Julen Rodriguez (Alegia) sailkatu ziren. Nesketan berriz, lehen hamar postuetan honela sailkatu ziren: 2. Ane Urruzola (Villabona), 6. Naiara Larrañaga (Zizurkil), 7. Miriam Abaigar (Villabona) eta 8. Libe Aldamiz-Etxeberria (Asteasu) izan ziren.

Mutilen Aurrekuko eta Nesken Soinu Zaharreko Finalak, Erreterria eta Legazpin jokatu dira, hilaren 15 eta 16ean.



Axier Iriarte, Oinkari Dantza Taldekoak irabazi zuen kanporaketa. HITZA

Finalak Erreterria eta Legazpin

Bi sailetan banatuta daude nesken eta mutilen taldeak. Mutilen A taldean, Ibarrako bi dantzari daude: Aimar Odriozola bigarren eta Aitor Maiza, hamaikagarren. B taldean berriz, 2. sailkatua Villabonako Axier Iriarte, 8. postuan Alegiako

Julen Rodriguez eta 9. Hodei Arrastoa, zizurkildarra.

Nesken kasuan, A taldean ez dago eskualdekorik eta B taldean, 2. Lierni Kamio eta 7. Ane Urruzola villabonarrak eta 14. postuan Libe Aldamiz-Etxeberria, asteasuarra daude.

Irati Jimenezentzat izango da 2009ko Beterriko Liburua Saria

Kultura » Bizkaitararen *Nora ez dakizun hori* eleberria, iazko obrarik gogokoen izendatu dute 111 Akademiakoek.

ERREDAKZIOA

2009ko Beterriko Liburu, Irati Jimenezek idatzi eta Elkar argitaletxeak plazaratutako *Nora ez dakizun hori* eleberria aukeratu dute 111 Akademiako kideek.

Maiatzaren 6an ospatuko da 2009ko Beterriko Liburua Oho-

rezko Literatur Aipamena ezagutzera emateko ekitaldia, Amasako kultur etxean egingo da 19:30ean. Idazle saritua bertan izango da eta saritutako obraren ale bat, larruz koadernaturik jasoko du.

Bozketa bidez aukeratu

Aukeraketa prozesua, hiru bozketa txandetan egin da. Urtarrilean hasi eta apirilaren 22an amaitu zen.

Lehenengo txandan, 150 akademiakideei, 2009. urtean gogokoen izan zuten liburuaren alde bozkatzeko eskatu zitzaion. Lehen txan-

da hartan, Beterriko Liburu izendatzeko behar zen botoen %30a lortu zuen obrarik egon ezenez, akademiak ohiko prozedura jarraitu eta beste bi bozketa txanda egin zituen.

Hirugarren eta azken txandan, bi finalistak, Irati Jimenezen *Nora ez dakizun hori* eta Aingeru Epaltzaren *Izan bainintzen Nafarroako errege* izan ziren.

Azkenean, Jimenezen eleberriak jaso du boto gehien eta idazle mundakarraren lanak hemerretzi botoko alde atera dio Aingeru Epaltzaren nobelari.

Bihar Andatza eguna ospatuko dute

ERREDAKZIOA

Urtero bezala, zizurkildarrek Andatza Eguna ospatuko dute bihar. Eta hainbat ekitaldi izango dira egunean zehar.

Hasteko, 11:00etan, hamaiketa-koa izango da; salda, txorizoa, haragi egosia eta edariarekin. 12:00etan berriz, herri kirol eta jo-

koak izango dira haur eta helduentzat. Segidan, 14:00ak aldera, bazkaria izango da, baina, bakoitzak berea eraman beharko du. Hala ere, kafea eta kopa banatu egingo dituzte.

Honez gain, goizean zehar erromeria izango da, trikitilari eta bertsolariekin.

'Udan jolasean' ibiltzeko begiraleak behar dira

Villabona » Begirale izan nahi dutenek edo bertara haurrak eraman behar dituztenek, hilaren 3tik 21ra izena eman beharko dute.

ERREDAKZIOA

Uda ate joka dator eta Villabonako Udalak dagoeneko, begiraleak behar ditu *Udan Jolasean 2010* ekimenerako. Bertan ibiliko diren haurrek ere izena orain eman beharko dute. Epez kanpo ez dute inor onartuko.

Begirale eta haurrek izena emateko epea maiatzaren 3an irekiko dute eta hilaren 21a bitarte egongo da zabalik, biak barne. Udaleko Euskara Zerbitzuan eman beharko da izena, bigarren pisuan.

Begiraleen kasuan honakoak dira bete beharreko baldintzak: euskaraz ondo jakitea eta 18 urte beteak izatea. Curriculum aurkeztu beharko da. Honekin batera bertan dioenaren agiriak eta NANaren fotokopiabatu.

Haurren baldintzak

Udan jolasean zerbitzua uztailearen 5etik 23ra, 9:30etik 13:00etara izango da. Ordu erdiko malgutasuna izango dute. Izena, 2000 eta 2007 urteen artean jaiotako haurrek eman dezakete.

Honen helburua, irteera, jolas eta beste jardueren bitartez, haurrek udan ere euskaraz egitea da.

Informazio gehiago nahi izanez gero Udalean bertan edota Euskara Zerbitzuko 943 693501 telefonora deituta eskura daiteke.

Laburrak

Asteartean 18:30ean Alkartasun hitzaldia

ANOETA » Hilaren 4ean, asteartea, Alkartasuna Biltokian beste hitzaldi bat izango dute. Oraingoan, *Komunikazioa eta laguntasuna, bizitza osasuntsurako giltzarri* izango da jorrratu beharreko gaia. Saioa 18:30etan hasiko da. Hizlaria, Eider Saez izango da eta herritar guztiak gonbidatuta daude bertan parte hartzera.

Gaur haizeteengatik atzeratutako partida

IBARRA » Gaur 11:30ean, Belabietako kiroldegian Ibarra F.S. taldeak, Durangoko Sasikoa taldearen aurkako partida jokatu du. 21. jardunaldiko partida, iragarritako haizete handiengatik atzeratu egin behar izan zuten. Honekin, etxean jokatu duten hirugarren partida izango da. Taldekide guztiak jokatzeko prest daude.

Urteurrena

4. urteurrena

MARIA OTEGI GARMENDIA



Maitasunak ez du neurrik zure hutsuneak ez du mugarik.

Etxekoak

Urteurrenako meza gaur, larunbata, arratsaldeko zazpitan izango da Zumarragako Andre Mari Jasokundeako parrokiari.

ZUMARRAGA
2010eko
maiatzaren 1a

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

Bengoetxea eta Barriola aurrez aurre izango dira bihar Eibarko Astelenan

Leitza » Partida galtzen duenak, aukera asko izango ditu buruz buruko txapelketatik at geratzeko.

ERREDAKZIOA

Oinatz Bengoetxea eta Abel Barriola leitzarrak aurrez aurre izango dira bihar, Eibarko Astelena pilotalekuan. EPELen Eskuz Bana-kako finalaurdenetako ligaxkan, elkarren aurka jokatu dute. 17:00etan hasiko da jaialdia.

Bi pilotarientzat oso garrantzitsua da biharko partida. Biek ere, lehendabizikoan huts egin baitzuten, eta ez zuten garaipenik lortu. Barriolak, 22-12 galdu zuen Martinez de Irujoren aurka eta Bengoetxeak 22-20 Olaizola Iaren kontra. Honenbestez, berriro galtzen duena ia ia buruz buruko txapelketatik at geratuko litzateke. Hau gainontzeko pilotarien emaitzek baldintzatua dago.

Ostegunean aukeratu zituzten iganderako pilotak eta biak ere gustura geratu ziren Juan Mari Juaristi hautatzaileak eskainitako otarrearekin. Dena den, aukeratu-tako bi sortak erabat ezberdinak dira.

Aurrerako pilotariak partida ugari jokatu dituzte asteburuan

ERREDAKZIOA

Leitzako pilotariak, astero bezala, asteburu honetan ere hainbat txapelketa jokatu dituzte. Hasteko, Irurtzungo txapelketako finalak izango dira gaur. 09:30ean hasiko dira partidak, Irurtzunen bertan. Hala, alebinetan, Aurrerako Jon Lezea eta Salaberria bikoteak Garcia eta Mariezkurrena izango dituzte aurkari. Kadeteetan, Anartz Olano-Tolosa Aurrerako bikoteak berriz, Karlosena-Andueza.

Irurritako Emakumeen Paleta Gomako partidak ere gaur izango dira. Iruritan bertan, 16:00etatik aurrera, Iera Agirre eta Saioa Aristerenak osatutako bikoteak Judith eta Maite izango dituzte aurkari.

Añorgako txapelketan, gaur 10:00etan, bikotea, Aurrerako Xabi Jaunarena eta Mikel Hernandorenak Mina eta Apeztegia izango dituzte aurkari. Bestalde, Matienako txapelketako finala ere izango da. 17:00etan, kadeteetan, Anartz Olano-Tolosa eta Sarastini-Irazoren arteko ikusi ahaliko da.

Natur Bideen Eguna ospatuko dute bihar goizean, Leitza



Ibilaldi ezberdinak egin ahal izango dira bihar goizean; honez gain, beste hainbat ekitaldi ere izango dira. N. GARZIA

Leitza » Udalak eta Plazaolako Partzuergoak antolatuta, ibilaldiak, hamaiketakoak, pailazoak eta musika izango dira.

ERREDAKZIOA

Leitzako Udalak eta Plazaolako Partzuergo Turistikoak antolatuta, aurten ere Natur Bideen Eguna ospatuko dute. Oraingoan Leitza izango da jaia, bihar, hain zuzen ere. Festa honen helburua, antzinako trenbideen bidea berreskuratu eta natur bideak sustatzea da.

Honela, Leitzako Geltokitik abiatuta, inguru natural bakarrean ibili nahi duten guztientzat luzera ezberdinetako ibilbideak proposatu dituzte. Buelatxoan indarrak berreskuratzeko, hamaiketakoak

» NATUR BIDEEN EGUNA

Maiatzak 2, igandea

■ **09:30.** Izen-ematea.

■ **10:00.** Leitzalarreko ibilbidea ausartentzat. 14 kilometro ditu.

■ **11:00.** Sagardotegiraino ibilbidea haurrentzat. 4 kilometro ditu honek.

■ **12:00.** Geltokian luntxa.

■ **12:30.** Pailazoak eta musika. Bertako produktuen zozketa bat izanen da.

egiteko aukera izango dute parte-hartzaileak. Honez gain, pailazoak, musika... izango dira. Ekitaldiak Geltokian badira ere, euria eginez gero, plazan egingo dira.

Ibilbideez gain, eguerdian Leitzako Plazaolaren Geltokian hainbat ekitaldiez gozatzeko aukera izango da.

2000. urtetik, Natur Bide

Natur Bideak 2000. urtean Lilleko Adierazpenean definitu zituen NBEE elkarteak (Natur Bideen Europar Elkarte). Honela adierazi zuen: «Komunikaziorako bide autonomoak dira, motorrik gabeko joan-etorriak. Erabiltzaile orok segurtasunez eta konbentzian erabiliko duela bermatuko dute. Horretarako, ingurumena zein bizi-kalitatea zaintzeko lehentasuna izanen du, eta gainera, zoruak zabalera, aldapa eta kalitate baldintzak beteko ditu. Hartara, garapen marko egokia izanen dute».

Aintzinako Plazaola trenak bi hiriburu lotzen zituen, Iruñea eta Donostia, eta Plazaola Partzuergo Turistikoak 2000. urtetik hona sustatu du 85 kilometroko bidea berreskuratuz. »

Aurrematrikula egiteko epea irekitzeaz da Udal Musika Eskolan

Tolosa » Astelehenetik aurrera zabalduko da epea; aurten gainera, hobeto antolatzeko, aldaketa batzuk egin dituzte.

ERREDAKZIOA

Eduardo Mokoroa Udal Musika Eskolak ireki du jada aurrematrikulak egiteko epea. Honenbestez, ikasle berri izango direnek, hau da, lehenengo aldiz izena ematen dutenek datorren kurtsorako aurrematrikula, etzitik hilaren 28ra bitartean egin ahal izango dute.

Aurten zenbait aldaketa egin dituzte, eta ondorioz, lehendik Musika Eskolako ikasleak direnak, hilaren 3tik 14ra bitartean egin beharko dute aurrematrikula.

Musika Eskolako ikasleak direnak, bainan instrumentua aurten



Instrumentu oso ezberdinak jotzen ikasteko aukera ematen du Eskolak. HITZA

lehenengo aldiz hartu behar dutenek berriz, maiatzaren 24tik 28ra arte itxaron beharko dute. Izen-ematea bulegoko ordutegian, hau da, astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 13:00era bitartean egin daiteke.

Musika eskolan ondorengo irakasgaiak ematen dira: akordeoia, pianoa, perkusioa, flauta, klarine-

tea, oboea, saxofoia, bibolina, biola, biolontxelo, kontrabaxua, baxu elektrikoa, tronpetea, tronboia, tronpa, bonbardino, tuba, txistua eta dultzaina. Bestalde, adin-mugarik ez dago eta lau urterekin hasi daitezke interesatuak eskoletan. Gainera, helduentzat solfeo eta instrumentuko ikasketa bereziak ematen dira.

Ezohiko azoka egun alaia izan zen atzo goizekoa

PABLO ALBERDI

Atzoko azoka eguna ezohikoa suertatu zen guztientzat. Hasteko, ostiralean ospatu zen gaur, larunbata, jai baita. Hori dela eta, erosleek kopurua eta salmentena ez zen betikoa izan. Egia da, azaldu ziren erosleak erostera joan zirela eta azkenean ez zela horren salmenta egun kaskarra izan.

Eskaintza ere oso baikorra izan genuen. Udaberriko produktu asko, baba eta ilarra nagusi direla, eta hauekin, neguko barazki dezentxe oraindik. Apaingarriko landareen postuak ere gaimezka, bai lorontzietan, baita lora moztuekin ere, eta sorpresa haundiena ondoko eta perretxikoen postuan ikusi genuen.

Hantxe izan ziren aurtengo lehenengo ondokoak, eta hauekin udaberriko zizak. Dirudienez, datozten astean izango ditugu aukeraren, eta dirudienez, ez dira gutxi izango erostekotan etorriko direnak.

» ATZOKO AZOKA

BERDURA PLAZA Merk. Gares.

Landareak		
Geraneoa	2,00	-
Alegria	1,50	2,00
Menta	1,50	6,00
Salbia	1,00	1,20
Berbena	3,00	-
Zainzuria	2,80	-

BERTAKO PRODUKTUAK

Perretxikoak		
Onddoak	29,00	30,00
Zizak	10,00	38,00

Fruta		
Kivia	3,50	-
Errezil sagarra	2,00	4,00
Urria	2,00	3,00
Intxaurra	2,50	4,00

Barazkiak (sorta)

Tipula berria	1,50	-
Babarrun zuria	8,00	-
Tomatea	3,25	4,00
Ilarrak	10,00	12,00
Babak	3,00	-
Porruak	1,00	4,00
Tolosako babarruna	10,00	12,00
Bainak	3,00	4,00
Patata berria	1,50	-
Letxuk	0,50	0,80
Espinakak	2,00	-

Besteak

Arraultzak	2,50	3,00
Artisau ogia	2,80	3,70
Irasagarra	3,00	6,00
Gazta berria	17,00	-

Produktuak ekologikoak

Sagarra	2,00	3,00
Kalabaza	1,60	3,04
Aza	2,50	3,00
Mermelada	3,00	3,60
Errerrolatxa	1,60	-



14°
8°

GOIZA	EURIA
ARRATS.	EURIA
BEROENA	14°
HOTZENA	8°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.
Ibarra: 687 410 118. ibarra@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leizaldea beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Festa

■ **Abaltzisketa.** Larre irekiera Larraitzen: 10:00etan postuen irekiera; 11:00etan musika; 11:30ean Mendiko Behor eta Zaldien Gipuzkoako 1. Lehiaketa; 12:00etan Aralarko Larreak irekitzeko suziria; ondoren ardi moztailen desafioa; 17:00etan erromeria.

Musika

■ **Zizurkil.** 22:30ean Belarritz Jan jatetxean Willy Muñoz Trio.

Jaiak

■ **Orexa.** 16:30ean *Egizu lo tartalo* haurrentzako antzerkia; ondoren merienda; 21:00etan herri afaria; 00:00etan dantzaldia Gabezin taldearekin eta ondoren DJ Bull eta baratxuri zopa.
■ **Asteasu.** Elizmendi auzoko jaiak: 11:00etan duatloia (mendiko txirrindularitza eta kroa); 16:00etan mus txapelketa herrikoa; 16:30etan txupinazoa eta Simonen jaitsiera; ondoren haur jolasak; 19:00etan haurrentzat zezen txiki eta poneyak; ondoren Kupela taldea; 20:30ean herri afaria Erretore Etxean; 23:00etan erromeria Kupela taldearekin; goizaldera txokolatada.

Zinema

■ **Tolosa.** *Alicia en el pais de las maravillas* filma Leidorren 17:00etan.
■ **Tolosa.** *Acantilado rojo* filma Leidorren 19:30ean eta 22:30ean.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Olarreaga, M. Martin Jose Iraola, 10. 943 67 24 38.
■ **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia. 112.
■ **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Jon, Izaskun eta Iñigok Kuban eta Polonian ateratako argazkiak bidali dituzte XI. HITZA Argazki Lehiaketan parte hartzeko. Ikuspegi benetan ederrak partekatu dituzte gurekin.

Paradisua ote?



TOLOSA

Jon Garcia Kuban izan zen Aste Santuan eta «Habanako kaleetan beisbolean» izeneko argazkia bidali du. «Hona hemen Kubaren beste aurpegia. Pobrezia handia dago bertan, baina hala ere umeak pozik ibiltzen dira Habanako kaleetan zehar beisbolean jokatzeko. Pasarte polita Habanako kaleetan ikus zitekeena», dio. JON GARCIA

TOLOSA ●
Izaskun Barriola ere Kuban izan zen. «Aste Santuan ikas-bidaia zela eta, Kubara joan ginen. Oraindik ez dakit Kuban edo paradisuaren egon ginen», esan du.

IZASKUN BARRIOLA



TOLOSA

Iñigo Berasategik Poloniako Wroclaw herritik bidali digu argazkia: «zuekin hemengo lorategi botanikoaren ikuspegi polit hauek partekatu nahi ditut». INIGO BERASTEGI



LASKORAIN IKASTOLA
Aste irekian saba, maiatzaren 3an, 17:30ean

Batxilergo matrikula, maiatzaren 3tik 12ra

**KALITATEKO HEZIKETA EUSKALDUNA
ETA ELEANITZA 0-18 URTE**

www.laskorainikastola.net tolosa@ikastola.net 943 667 127

hirukide
sainberri
Jesuitinak
erkolapinak

943 670 311
www.hirukide.org

Belarriak
Zurekin eta Zurekin
Gin eta Gurekin Zurekin
Gin eta Gurekin Zurekin
Gin eta Gurekin
Gin eta Gurekin